

# Arrate

1998ko  
Urtarrilak 9  
423. zenb.

Umezaintza  
airean



IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • KULTURA: TXATXILIPURDI  
EUREN-IKUSPUNTUTIK: IÑAKI JAUREGIALZO • KIROLAK: ESKUBALOI TALDEA

# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

**LOGELATAN** espezializatutako zentrua

48 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Eta orain  
2. solairua  
**Saloi eta sofa**  
**erakusketa**


**LARUNBAT ARRATSALDEETAN ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 79 41 82

# GRUPO **RKUZ**

## sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaketan
- Betiko muntaketak

**FAGOR** 



Mitarte, 3 • ARETXABAETA • Tel. / Faxa: 943 77 04 55

# Gaur intimista izan nahi dut

**G**aur leihoa zabaldu nahi nioke intimismoari, giza balioen ahotsari, aspaldiko garaioetan "zibilizazioak" eta bizitzaren abiadura zoroak hankaz gora jarri diguten giza arimaren oihartzunari.

Beharbada euria ari delako... edo udazkena iritsi delako... edo helduago egiten garen neurrian guztiaz kontzienteago bihurtzen garela uste dugulako... edo beldurtzen gaituen heriotza hurbilago ikustea tokatzen zaigulako... horregatik guztiagatik edo azaltzen asmatzen ez dudan zerbaitegatik beharbada... baina oraingo honetan ez nator baikor... edo kementsu... edo zirikatatu nahian... ez nuke etorri behariko beharbada, zenbait gauza publikoki adieraztea, alegia, norberaren ezinegona, tristezia edo malenkoniaren berri ematea ez baita gure gizartean baloratzen den zerbaite... eta are okerrago: beharbada ez zaio inori inporta. Hala ere, horre-



ÇKarmele Perez

**"Berez sinplea eta erraza behar zukeen bizitza, konplexu bihurtu zaigu"**

lakoak denak sentitzen ditugulako eta, hein handi batean, denok izkutatzen ditugulako ekarri dut gai hau hona. Izan ere, gure ahultasuna azaltzea edo gure sentimenduak adieraztea ez baita bizi dugun eta bizi gaituen gizarte zibilizatu eta garatuak bultzatzen dituen dohainak, ez horixe! Aitzitik, gizarte hau, lehia, indarkeria, gogorkeria, berekoikeria... eta beste hamai-ka "keria" gehiago bultzatzen

xahutzen du bere denbora eta bere ahalegina. Berez sinplea eta erraza behar zukeen bizitza, konplexu bihurtu zaigu-digugu. Munduko zein tokitan, zein gizarte motatan, zein familian jaiotzea tokatu zaigun, horrek erabaki du gure bizimodua nolako izango den: loteria hutsa. Eta loteria

horrek erabakiko du gure bizitzak eta gure arima-bihotzak nolakoak izango diren. Hemengoak zorrea izan dugula sinisten dugu. Egia ote? Kontua zera da, alegia, geuk ere ez dakigula gure arimaren berri ematen, elka-

rrekin izkutatetan jolasten dihardugula bizitza osoa, ez diogula inori gure barrenean sartzen uzten... elkarri min egingo diogulakoan... elkarren ahuleziak antzemango ditugulakoan... edo hor barruan aurkituko dugun bakardadeari beldur diogulako beharbada. Hortaz, sentimendu praktikotasunaren eta ezagutzaren legea ezartzen diegu: gizarte, pertsona, gero eta jakintsuagoa da, aurreratua gero eta aurrerakoiagoa da, eta aldi berean gero eta hotzagoa, gero eta gogorragoa.

Gizakiaren jaiotza arimaren eta bihurtzaren ahotsak bultzatu bazuten, gizakiaren heriotza gure barreneko isiltasunak ekarriko ote duen kezka daukat, barren horren ahotsak aldarrikatzen dituen balio horien soinuek gero eta armonia ahulagoak eraikitzen baitutuzte.

Ahaztu zaigu dagoeneko, bizitza gaurko egunez eraikitzen dela eta bihar hipotesi hutsa dela. Modernitateak, gaur ditugun balioei muzin egin eta bihar izan ditzakegunak desirarazten dizkigu. Hori ironia! Ni neu behintzat barreneko ahotsari entzuteko paradan nago gaur. Asmatuko al dugu benetan garrantzitsuak diren gauzak baloratzen!

*"Gure ustez, ez da nahikoa arkitektu, apařejadore edo tekniko ona izatea. Udalak zerbitzu publikoa eskaintzen du eta hiritarrari zerbitzu ona eman behar zaio"*

**Paco Garcia**

# 7

**milioi pta.ko zorra egin du Umezaintzak 8 hilabeteen**

Arrasateko Umezaintzak zazpi milioi pta.ko zorra egin du urtarrietik abuztua bitartean. Umezaintzak 213 haur ditu guztira. Horietatik 95 dira diru laguntzarik jasotzen ez duten hiru urte arteko umak.

## I T U R R I O N E T I K

### Estatua bat Musakolako astoari?

Astoa ia ezinbestekoa izan da Musakolako jaietan, San Isidroetan. Zaharrenek gogoratuko dutenez, soinu-jolearen laguntzarekin egiten ziren kalejiretan ezin astoa falta. Denboraz, San Isidroetako sinboloa bihurtu da. Eta batzuen iritiz, baita auzokoa ere.

Kontua da Musakolako hainbat jende estatua bat edo, egiteko asmotan dabilela, astoaren omenez. Dagoeneko baten batek hitz egin omen du Vasco Montecchi eskultore italiarrarekin. Honen eskultura bat, *Ritorno di laboro*, San Andres auzoan dago. Datorren urtean Guggenheim museoa ikustera datorrela eta, akaso abagune hori aprobetxa liteke astoaren eskultura hemen egiteko.

Nola ordaindu, baina, eskultura? Ideiaren bultzatzaileek uste dute milioi bat pezeta bilduko lituzketela auzoan. Ikusi egin behar hori nahikoa den.

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK  
ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioak:** Agurtzane Gaiztegorri (Tel.: 943 79 02 26)

**Diseinua:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berri-makila:** Lierni Urbarren. **Bekaduna:** Gontzal Lande. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteia Saila, ASA Ialdea, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arriburu, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreira. **Banaketak arduradunak:** Jasoari Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuaren egiten da.

**Azaleko argazkia:** Marijo Deogracias.

**Arrasateko Udaleraren laguntza**  
**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza**

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala, 9**  
 • Egunez eta gauzez: Azkoaga, Ferrerías
- Larunbata, 10**  
 • Egunez eta gauzez: Espaiol, Iturriotz
- Igandea, 11**  
 • Egunez eta gauzez: Korkuera, Musakola
- Astelehena, 12**  
 • Egunez eta gauzez: Irizar, Erguin
- Astearte, 13**  
 • Egunez eta gauzez: Azkoaga, Ferrerías
- Asteazkena 14**  
 • Egunez eta gauzez: Espaiol, Iturriotz
- Osteunga, 15**  
 • Egunez eta gauzez: korkuera, Musakola

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

- Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00  
 Iguallatorioa ..... 943 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... 943 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
 Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
 Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ... 943 79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 77 03 46  
 • Espezialitateak ..... 943 77 05 78  
 ..... 943 77 12 64  
 Ohati ..... 943 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 943 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
 Ohati ..... 943 78 04 11  
 Bergara ..... 943 76 14 69  
 Arrasate ..... 943 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 088
- Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
 Udaltaldeak ..... 943 79 09 00  
 Udaltaldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 943 79 78 44  
 ..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
 Taxiak ..... 943 79 12 22  
 PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 KIUUB-OMIC ..... 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**  
 Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
 Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

**ESKER ONA**

Urko Bedia Perezen familiak eskerrik beroenak eman nahi dizkio Musakolako San Isidro elkarteari bizi izan ditugun une zailetan eskaini digun laguntzatik.

*Urko Bediaren familia*

**UDALATX EGUNA**

Pilareko Amaren egunetan, urriak 12, Udaltx eguna egingo da. Udaltx Zaleak taldeak ohiko ekintzak antolatatu ditu Udaltxeko tonorean.

Urtero bezala, goizeko 11:00etan meza izango da gailurrean. Gogoan izango dugu martxoaren 20an Gours-Blanc mendian istripuz hil zen Unai Zubikarai Auzmendi. Zure laguntza izan genuen gurekin izan zinen artean. Beti izango zaitugu gogoan Udaltx zaleok. Mendizale eder bat galdu da gure baratzean. Mila malko triste isuri dira gure herrian. Gure bihotz barruan izango zara beti. Maitasuna ez da inoiz hiltzen eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.

Meza honetan ezin ahaztu hildako beste mendizaleak, mendirik mendi eta gailurrik gailur ibiltzen ziren guztiak. Mendietako maldeetan eraman dituz heriotza latzak. Jaungoikoak gorde ditzala guztiak bere habian. Meza honetan gogoan izango ditugu, halaber, Udaltx zaleak: Juan Jose Salabarria, Angel Balzategi, Teodoro Arana, Jesus Jauregi, Nikolas Agirre, Jose Mari Saiz,

Antonio Zubizarreta, Jose Mari Mendizabal apaiza eta Heriberto Mendizabal.

Ohiturari eutsiz, meza ostean Aita Lekuonaren abestia kantatuko da:

*Udala mendi, Udala mendi  
 euskal haitzik zutunena  
 Araba alboan, erdi Bizkai ta  
 erdi Gipuzkoa haizena.  
 Zeruko Jaunak eukiko al hau  
 beti gaur haizen zuzena,  
 heu haizen arte zutunik bedi  
 euskaldunaren izena.*

Eguraldiak laguntzen ez badu, meza 12:00etan izango da, Udalako San Eztebe elizan. Agur eta esker mila.

*Besaide Mendizale  
 Elkarteko  
 "Jan da Lo Taldea"*

**MARITXUAK**

Aste honetako Arrasate Press ostiralero moduan eskuetan nuela, ezusteko handia hartu nuen Maritxu Kajoiaren inguruko erreportajera iritsi nintzenen: erreportajea irekitzen zuen argazkian bi modelo agertzen ziren. Hara non nire harri-dura, bi modelo haiek ez direla arrasatearrak ikustean.

Galdera egin nion neure buruari: ez da Maritxu Kajoi arrasatearron jaia eta, ondorioz, ez dago arrasatear parerik argazki horretan modelo bezala agertzeko?

Nire iritiz, bai. Badago arrasatearron artean argazki horretan agertzeko moduko jenderik. Arrasate Presseko portadako bertso zati batean dioen bezala, "elkar gaiten", hurrengo Maritxuko argazkietan arrasatearrak ager daitezten.

Z.M.  
 N.A.: 16.292.997

**Gutun araudia**

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziek balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sor ez dadin araudi berria ezarri dugu, gutunetako sailean.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitahi:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimo, gaitzenez edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordetako. Erredakziora ailegatutako ordenean kale-ratuko dira gutun guztiak.
- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna eka-ri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du. Telefono zenbakia nahikoa da.

*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko arropa**  
 Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN jatetxea**  
 Garagartza auzoa  
 Tel.: 943 79 76 58  
 ARRASATE

**M MEMESA**  
 Industria hornidurak  
 Tel. 943 71 24 25

# Zer egingo zenuke zure auzokoak emaztea egurtzen duela jakinda?

Hamar minutuero emakume bat hiltzen da tratatu txarren eraginez.




**Saioa Urrutia**  
(21 urte)  
Ikaslea

Lehenengo emakumearekin hitz egiten saiatuko nintzateke, eta bere gizona salatzeraz animatuko nuke.



**Goizane Arana**  
(20 urte)  
Ikaslea

Emakumearekin egongo nintzateke lehenik, eta bere egoera publiko egiteko eskatuko nioke, nahiz eta nire kontua ez izan.



**Aitor Iturriaga**  
(41 urte)  
Langilea

Lehenengo emakumearekin hitz egingo nuke, eta bere egoera salatzeraz animatuko nuke. Era berean, laguntasuna eskainiko nioke.



**Amaia García**  
(36 urte)  
Langabea

Emakumearekin hitz egiten saiatuko nintzateke lehenengo. Gero, berriz, salatu egingo nuke gizona, berak nahi izan edo ez.



**Antxoka Elorza**  
(19 urte)  
Ikaslea

Emakumearekin hitz egingo nuke eta bere kasua salatzeraz animatuko nuke.



**Serafino Bartolozzi**  
(40 urte)  
Ingeniaria

Poliziarari hots egingo nioke.



**Agurtzane Martiarena**  
(28 urte)  
Sukaldaria

Ezaguna izanez gero, aholku batzuk emango nizkioke emakumeari.



**Joseba Iribekanos**  
(42 urte)  
Langilea

Salatu egingo nuke.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**ORTO + LAGUN**

O R T O P E D I A

*Mina izan aurretik, zatoz guregana  
minari aurea hartzea da gure apostua!*

- Bizkarra zaintzeko jaja bereziak
- Oinetako eroxoak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

# Arrasate

## LANAK

### OTALORAN

Pilotalekuaren lanetan kamioiak arituko dira.

### URIBARRIN

Uriburu kalean eskailerak egiten ari dira. Astebetez barrakak eongo dira.

### ARABA ETORBIDEAN


Bolinete baserri inguruan argi indarra sartzeko lanak.

### KONTZEZIÑO KALEAN

Lanek jarraitzen dute.

### FORUEN PLAZAN

Espaloia konpontzen ari dira.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 9**



**LARUNBATA 10**



**IGANDEA 11**

Euria ekarriko duten lainoak izango dira nagusi. Tar- teka zaparradaren bat edo beste ere egin dezake, baina goizalde partean.

Zerua erabat esta- lita eongo da eta euria egingo du tar- teka. Temperatura igo egingo da pis- ka bat.

Lainoak izango dira igandean ere nagusi eta euria ekarriko dute. Ten- peratura ez da alda- tuko.

## Ilargia



**ilbehera**

Astlehenean, urriak 12, ilbe- hera izango dugu.

## Mezak

### Parrokia

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandean:**  
09:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandean:**  
09:00 (euskaraz)  
10:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (erdaraz)  
19:00 (elebiduna)

### Uribarri

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandean:**  
11:30 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)


### San Andres

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandean**  
10:00 (erdaraz)  
11:00 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandean**  
10:30 (erdaraz)  
11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**  
**%83,3**



## Distantziak

Arrasate										
121	Baiona									
690	579	Bartzelona								
57	170	620	Bilbo							
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela						
72	50	529	119	1.088	Donostia					
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz				
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea			
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril		
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris	

- *Karta eta eguneroko menuak*
- *Bakailaoan espezializatuak*



J A T E T X E A

*Berriz ere zabalik!!*

*Astelehenetan itxita*

Rosario, 4 LEINTZ-GATZAGA Tel.: 943 71 54 94



**Zatoz eta  
ezagutu  
gaitzazu!**



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

**VOLVO**

Auto Suecia



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



MITSUBISHI  
MOTORS

Aldikar autoak, S.L.

**ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxe: 943 79 65 65**

9

ostirala

■ ZINEA

Cha, Cha, Cha, Alai zine-  
man, 19:00etan eta 22:00etan.

11

igandea

■ ZINEA

Dr. Dolittle, Alai zine-  
man, 17:00etan, 19:30etan eta  
22:00etan.

12

astelehena

■ ZINEA

Dr. Dolittle, Alai zine-  
man, 19:00etan eta 21:30etan.

■ KALE AGERRALDIA

Donostian egingo den kale  
agerraldira joateko autobusak  
Garibai kaletik aterako dira  
arratsaldeko 15:30etan. Txar-  
telak Iratin daude salgai, 1.000  
pta.tan. Kale agerraldia  
17:30etan izango da.

■ MARGO LEHIAKETA

Aramaioko VII. Margo  
Lehiaketa egingo da eta egin  
beharko diren lanak, goizeko  
09:00etatik 11:00etara bitar-  
tean sinatuko dira. Gaia Ara-  
maio eta bere ingurua izango  
da. Nahi duten guztiek har  
dezakete parte. Lehenengo  
saria 100.000 pta.koa da, biga-  
rrena 60.000koa eta hiruga-  
rrena, berriz, 40.000koa. Epai-  
mahaiaren erabakia 18:30etan  
emango da jakitera. Sari bana-  
keta, ostera, Sastiñan izango  
da. Margo lanak urriaren 12tik  
21era erakutsiko dira. Lanak  
berreskuratzeko epeak urria-  
ren 22tik 30era iraungo du.


10  
larunbata

■ ZINEA

Cha, Cha, Cha, Alai zine-  
man, 17:00etan, 19:30etan eta  
22:00etan.

■ MENDI IRTEERA

Besaidek Vall D' Aranera  
antolatuta du irteera. Autobusa,  
goizeko 05:00etan aterako da,  
Garibai kaletik.



UDALATX EGUNA

Pilareko Amaren egunean, astelehena, urriak 12,  
Udalatx Eguna egingo da. 11:00etan meza esango  
da Udalatxeko tontotorrean, Gourgs-Blancs  
mendian istripuz hil zen Unai Zubikarai gogoratzu.  
Eguraldiak laguntzen ez badu, meza Udalako San  
Eztebe elizan izango da, eguerdiko 12:00etan.

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta  
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



- Janari prestatuak
- Artisau produktuak
- Hanburgesak
- Pizzak
- Bokatak
- Bakailaoa

Mitarte 10 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 77 06 12 • Fax: 943 77 15 82

Hilbera  
kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

Tel.: 943 79 22 70



# 13

## asteartea

### ■ ZINEA

Dr. Doolite Alai zineman,  
19:00etan eta 21:30etan.

# 14

## asteazkena

### ■ EH-REN MITINA

Euskal Herritarrok elkar-  
goak mitina eskainiko du  
Sebero Altube plazan, arra-  
tsaldeko 19:00etan. Aurrez,  
18:30etan, buzkantzak eta  
tortila jateko aukera izango  
da. Mitinean Jose Iriarte *Biki-  
lak* eta Arnaldo Otegik hitz  
egingo dute.

### ■ MENDI IRTEERA

Besaide Mendizale  
Elkarteak Lagran-Cruz del  
Castillo mendi irteera  
antolatu du. Biasterirako  
irteeran parte hartu nahi  
dutenek, urriaren 13tik  
15era dute izena emateko  
epea, Besaideren egoitzan  
arratsaldeko 19:30etatik  
20:30etara. Irteera urriaren  
18an izango da, goizeko  
07:00etan.

### ■ "SERRAJERIA" ARGAZKIETAN

Jon Ruiz de Zarate  
argazkilari mondragoe-  
tarrak *Serrajería* izenburuko  
argazki bilduma ipini du  
Harresi Aretoan. Urriaren  
9tik 25era bitartean  
egongo dira ikusgai Union  
Cerrajera izan zenaren  
irudiak. Erakusteka  
lanegunetan 18:00etatik  
20:00etara eta igande eta  
jaiegunetan 12:00etatik  
14:00etara eta  
18:00etatik 20:00etara  
egongo da ikusgai.

### ■ PERKUSIO IKASTAROA

Astehenero perkusio  
ikastaroa ematen ari dira  
Gazteluondoko ikastolan,  
arratsaldeko 18:00etatik  
21:00etara. Ikastaroak  
ekaina arte iraungo du.

### ■ PUNTUA, GURUTZ PUNTUA ETA GANTXILOA

Ekinek, "Puntua,  
gurutz-puntua eta  
gantxiloa" egiten ikasteko  
ikastaroa antolatu du.  
Saioak asteartero izango  
dira eta matrikula 5.500  
pta. kostako da.  
Interesatuak Pablo Uranga  
kalean duten egoitzara joan  
daitezke, lehenbailehen.

### ■ ARIZMENDIARRIETA SARIA

Gizabide Fundazioak  
Arizmendiarieta XIII.  
lehiaketa antolatu du.  
"Amets Bat Eraikiz"  
izenburupean. DBH eta Ez  
Derrigorrezko Bigaren  
Hezkuntzako ikasleeak har-  
dezakete parte lehiaketan.  
Lanak aurkezteko epea  
maiatzaren 17an amaituko  
da. Gizabide Fundaziora  
bidali beharko dira. Lehen  
sailkatuek 100.000 eta  
150.000 pta.ko sariak  
eskuratuko dituzte.

Bigarren eta hirugarren  
gelditzen diren lanek ere  
sari garrantzitsua eskuratu  
ahal izango dituzte.

### ■ JOKIN ZAITEGI

Amaitzear dago AEDk  
antolatutako Jokin Zaitegi  
XII. Itzulpen laburren  
lehiaketara lanak  
aurkezteko epea. Azken  
eguna urriaren 31 izango  
da. Lanak edozein  
hizkuntzatatik itzulitako  
idazlanak izan daitezke eta  
AEDren egoitzan aurkeztu  
beharko dira. 200.000 edo  
100.000 pta.ko sariak  
emango dira.

### ■ ZERAMIKA IKUSGAI

Jabier Mercaderren  
zeramika lanak daude  
ikusgai Mondragon  
Hotelean. Erakustaldi  
honetan ikus daitezkeen  
lanetako batzuk 1999an  
zehir Europako eta  
EEBBetako hainbat  
hiriburutatik pasako dira,  
beste zeramika lan  
batzuekin batera. Lanak  
09:00etatik 12:00etara  
eta 16:30etatik  
19:30etara ikusi ahal  
izango dira.



# EZARKI

## OINETAKO KONPONKETAK

Maalako Errebala, 8 • ARRASATE

- Mota guztietako oinetakoen konponketak (kalekoak, kirolekoak, mendikoak,...)
- Kremaierak
- Errematxeak, botoi zuloak, automatikoak
- Kremak, tinteak, kordioak
- Nekearen kontrako plantilla bereziak
  - Zientifikoki aztertuak
  - Forma anatomikodunak
  - Arazo guztientzako plantillak

### S. CARRASCAL S.L.

#### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

#### Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

### ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

USTEAK USTE

Adi Arrasate  
Telebistari

**A**rrasate Telebis-  
tak bere zortziga-  
rren denboraldia-  
ri ekin berri dio. Orain-  
go honetan, urtero be-  
zala, ahalegin berezia  
egin du bere ikusleei  
ahalik eta programa-  
ziorik txukunena eta  
interesgarriena  
eskaintzen.

Kareta berriak,  
aurpegi berriak, saio  
berriak eta ordu  
gehiago prestatu ditu.  
Betiko moduan,  
etxeko kazetariak eta  
teknikariak ardura-  
tuko dira programak  
behar den bezala eta  
agindutako moduan  
atera daitezen, baina  
aipatzekoa da zenbat  
herritar ari diren modu  
batean edo bestean,  
aurkeztuz edo idatziz,  
herriko telebistari  
laguntzen. Batzuek  
gustukoa dutelako  
besterik barik, eta  
beste batzuek ikasi  
nahi dutelako. Inoiz  
beste telebista handi  
batean aukeraren bat  
izateko itxaropena  
dutenak ere badira  
eta ez dute motiborik  
ez itxaroteko. Hortxe  
dira Anne Igartiburu,  
Anuska Lasa, Maider  
Egues eta beste asko  
eta asko, etxe  
honetan hasi zirenak.

Ez dakit zenbate-  
raino konturatzen  
garen zein inportan-  
tea den ATB mondra-  
goetarrontzat.

Joxe Aranzabal



Ehizaldia

Iñaki Jauregi <sup>\*</sup>

**E**rromantiko eta poeta guz-  
tiantzat aparta den natu-  
raren ziklo batean sartu  
gara, udazkenean, alegia.  
Hotzaren ataria da eta gure  
baserrietan uzta biltzeko sasoi-  
a. Baina baita hegaztiak migra-  
tzeko eta, ehiza bidez, espe-  
zie asko hiltzeko garaia ere.

Zaila da ehizari buruz ezer  
berriak esatea, baina ezin gara  
isilik egon. Hainbat eta hain-  
bat dira gizakia ehizatzerak bul-  
tatzatzen duten arrazoiak.  
Batzuek arbasoengandik jaso-  
tako tradizioa dela diote, bai-  
nabadirak beste arrazoi asko ere.

Garai batean, ehiza behar-  
beharrezkoa zen elikatu eta  
bizirik irauteko. Baina gaur  
egun ez dago horren beharrik.  
Bestelakoak dira ehizarako  
arrazoiak. Hain zuzen ere,  
pertsonek batzuek uste  
dute planeta gizakiok  
“zuzentzen” dugunez,  
zilegi zaigula hiltzea  
eta oreka ekologikoa  
arriku larrian jartzea.  
Uste honek ez du ino-  
lako zentzurik eta giza-  
kiaren interesak baino ez  
ditu kontuan hartzen.

Gainera, armen industriak  
interes handia du ehizan.  
“Kirol” honetan milaka milioi  
mugitzen dira, hain justu,  
eskopeta eta kartutxuen sal-  
mentan eta ehiza babeslekue-  
tan eta toki pribilegiatuetan ehi-  
zatzeko baimena lortzen.

Sinestezina baina egia da,  
halaber, hainbat alderdi poli-  
tikok ehiza sustatzeko interesa  
izatea, ehiztarien botoak esku-  
ratzeko asmoarekin, jakina.  
Horren adibide garbia da, esa-  
te baterako, kontrapasen ehi-  
zatzen uzteko EAJk Espai-  
niako parlamentuan egin zuen  
proposamena.

Interes nahaste honen  
aurrean, ehizaren aurka dau-  
denen kopurua ere handituz  
doa. Bereziki interesgarria  
da jarduera zinegetiko honek  
euskaldunon artean hainbeste  
jende aurka izatea.

Gizaki gehienak ematen  
dutena baino hobeak dira.  
Denok jaiotzen gara argiak  
eta sortzaileak izateko eta  
arazoei irtenbide irudimen-  
tsuak emateko ahalmenare-  
kin. Baina gizarte hau ez  
dago gure neurriera egina.  
Gaur egungo gizarte ordenak  
ez du ahalmen horiek gara-

tzeko aukerarik ematen. Sarri-  
tan, gure alderdirik gizatia-  
rra lausotu egiten da, bai-  
na ez da erabat desagertzen.  
Gizakiaren alderdi gizatiar  
horri erregutu nahi diogu.  
Ona da alderdirik politenak  
distira egitea.

Ildo horretatik, uste dugu  
oso interesgarria izango litza-  
tekeela ehiztariak eta euron  
elkarrekin “eskopeteroen”  
gehiegikeria batzuk, behinik  
behin, murrizteko jarrera har-  
tzea. Naturarekiko errespetua  
zaindu eta praktikatu behar  
dute bizitzen utziz eta, kasu-  
rik okerreanean, mendian kar-  
tutxo, usategi eta hondakin  
pila hori ez lagata.

Baina horiek iragana dira,  
hori pentsatu nahi genuke  
behintzat. Jarduera zinegeti-  
koa ahalik eta gehien murriz-  
tu behar da. Horretarako bere-  
ziki onuragarria izango litza-  
teke Deba Garaiko ikastetxe  
eta Ingurugiro Heziketarako  
zentruak ikastaro eta jardue-  
rak antolatzea, haurrek ani-  
maliak maitatzen, errespata-  
tzen eta bizirik uzten ikas  
dezaten. Alderdi hau, ezta-  
baidatua bada ere, gure ustez  
garrantzitsua da ingurugiro-  
aren hezkuntzan eta baita era-  
bateko prestakuntzan ere.

Ezinbestekoa da erres-  
petuzko harremanen ikus-  
molde berria sortzea,  
gizakion kolore, joera  
eta pentsamenduak eta  
planeta hau osatzen  
duten beste anai-arrebak  
(animaliak) errespata-  
tzeko.

\* EKiko kidea.

“  
Jarrera  
zinegetikoak ahalik eta  
gehien murriztu  
behar dira  
”

M  
Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
ARENAZA  
Bizkai, 1 • ARETXABAETA  
Tel.: 943 79 08 07

Lore  
Lurrindegia  
Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50

BASABE  
JATETXEA  
Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 943 79 91 84  
ARETXABAETA

astea bi hitzetan

■ **“Samurai Berria” eleberria**

Joan den astean Josemari Velez de Mendizabal idazle arrasatearraren azken eleberria aurkeztu zen Donostiako Udal Liburutegian. “Samurai Berria” espioitza eleberria da. Bere azken eleberrietan bezala, hemen ere Kosme Zubia da protagonistarik nagusia. Eleberria Elkarlanean argialetxeak argitaratu du. Laster Arrasaten aurkeztuko da.

■ **Jarraitzen agerraldia**

Maritxu Kajoi egunean Jarraitaldeak kale agerraldia egin

zuen, Euskal Herriko herri guztietan zegoen deialdiari jarraituz. Agerraldi honekin Euskal Herriko proiektua eraikitzeko garaia orain txede adierazi nahi izan zuten.

■ **Drogomenpekotasun plana**

Pasa den asteko Gobernu Batzordeak, drogomenpekotasun plana onartu zuen. Arrasaten zazpi-zortzi urtean zehar landu izan den prebentzio prozesuaren sendotze eta sakontzearen ondorioa da plan hau eta bi helburu nagusi ditu: alde bate-

tik, drogak hartzen dituztenen inguruko baldintzak aldatzea eta bestetik, gai horren inguruan dauden aurreiritziak aldatzea.

■ **LHT Angiozar edo Epeletik**

Deba Garaiko Mankomunitateak urriaren 28an erabakiko du Lastertasun Haundiko Trena (LHT) Angiozarretik edo Epeletik zehar pasatuko den. Alegazioak aurkezteko epea luzatu egin delako atzeratu behar izan da erabakia. Bergarako Udalak eta Mankomunitateak ikuspegi desberdinak dituzte.

■ **TAKOLOKO BIRIBILAREN INAUGURAZIOA**

Joan den ostiralean, Antton Jaime Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide diputatua eta Arrasateko alkatea, besteak beste, Takoloko biribila inauguratzen izan ziren. Lan hauek, 155 milioiko kostua izan dute.



“Zenbat eta gehiago entzun plataforma digitalez hitz egiten dela, gehiago ikusten dut Teledonosti: *zapping* egiten Clinton, Marlon Brando, Ronaldo edo *Emmanuelle* ikusteko aukeraren aurrean, geroz eta gogo handiagoa sartzen zait herriko telebista piztu eta Odon Elorza edo bosgarreneko nire auzoa ikusteko. Herrixka globalaren aldean, nahiago dut hemengo herrixka. (...) Gauza bera egingo nuke Arrasaten, Zarautzen edo txikitelea duten bestelako herrietan. Baina hau idazten duen honek RH txuri-urdina duenez (odol kontuak ez zaizkit axola), Donostiako teleari begiratzen dio”.

**MITXEL EZKIAGA**

DV, 1998.10.4

**Haurdun bazaude, LAURA da zure jantzidenda.**

**Udazkeneko moda gaztea jatzeko, neurria ez da arazo izango.**

**Neurririk zabalenak ditugu.**

**Laura**



**Erdiko Kale, 30 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 05 80**

# Arazoak udaletxean, zenbait lanposturen kontratazioak direla eta

Astelehen goizeko 10:00etan Arrasateko Udaleko langileek bilera egin zuten, udal gobernua hainbat lanposturen kontratazioetan hartzen ari den jarrera aztertzeko.

Hiru langunek sortu dute ezinegona langileen artean: arkitektuarenak, Monterron eta Santa Barbarako lorezainarenak eta Iturbide Egoitzako administrazio laguntzailearenak.

## ARKITEKTUA

Orain urte eta erdi Tito Percezek arkitektu plaza atera zuen Arrasateko Udalean. Ohitura den bezala, 18 hilabeteko praktikaldia egin behar izan du, funtzionario bihurtu aurretik.

Joan den larunbatean bukatu zitzaion praktikaldia. Kontua da bere sailburuak arkitektuaren aldeko txostena egin duela, lanean ona dela esanez. Horrekin batera, eskatzen zitzaion 4. hizkuntza eskakizuna ere lortu duela. Hala ere, badirudi udalak ez duela hartuko.

Paco Garcia udaleko Pertsonal batzordeburuak azaldu zuen zergatia: "Egia da Hirigintza Saileko arduradunak arkitektuaren aldeko txostena egin duela. Teknikoki zuzena da. Baina udalaren gobernua osatzen dugun politikoei geure txostena daukagu. Gure ustez, ez da nahikoa arkitektu, aparejadore edo tekniko ona izatea. Udalak zerbitzu publikoa eskaintzen du eta hiritarrari zerbitzu ona eman behar zaio. Uste dugu oraingo arkitektuarekin hainbat arazo daudela, aipatu nahi ez ditudanak, eta publikoari eman behar zaion



Enpresa batzordeak kalean azaldu zuen haserrea.

zerbitzuarekin zerikusirik dutenak".

Hirigintza Saileko langileek, beren aldetik, idatzi bat kaleratu dute, Titoren gaitasuna, bai lanean eta bai jendearekiko tratuan goraiapatuz. Idatzi horretan eskatzen diote Hirigintza Batzordeari birkontsideratzeko joan den astean arkitektuari behin betiko kontratua ez luzatzeko hartu zuen erabakia. Erabaki hori asteazkenean egin zen bileran aztertu zen berriro. Azken hitza, hala ere, alkateak izango du.

## LURPERATZAILEA ETA ADMINISTRARIA

Arazoak ez dira horretara mugatzen. Joan den astelehenean udalak lantokiz aldatu du

lurperatzailea. Tomas Azula erretiratu dela eta, udalak Jon Etxaniz lurperatzailea jarri du Monterron eta Santa Barbarako lorezain lanetan. Aldaketa hau ez da oraindik behin betikoa, udaleko gobernua aurrekontuak begiratzen ari da eta.

Hirugarren arazoa Iturbide Egoitzan egongo litzateke. Alde batetik, Iturbideko gerentek udaletxean egingo du lan aurrerantzean. Hori dela eta, Iturbide Egoitzako administrazio laguntzailea administrazioa izatea proposatu da, erantzukizun eta soldata berriekin. Hau ere, oraingoz, proposamen hutsa da.

Enpresa Batzordeak ez ditu begi onez ikusten aldaketa hauek. Horregatik, astelehen goizean langile bilera egin zen

udaletxean. Arratsaldean, berriz, adierazpen bat zabaldu zuten komunikabideen aurrean, langileen jarrera ezagutarazteko. Udal langileen ordezkariak hauxe eskatzen diote udal gobernuari: arkitektuaren inguruko erabakia aldatzea eta gainerako puntuak negoziatzea.

Bien bitartean, enpresa batzordeak mobilizatorako deia zabaldu du. Asteazkenean, adibidez, Hirigintza Batzordea bildu zen bitartean, udal langileek lan uztea egin zuten. Berdin egingo dute datorren asteartean Pertsonal Batzordea biltzen den bitartean. Alderdi politikoei era bilduko dira. Azken erabakia arkitektua ez hartzea izango balitz, ordea, greba etor liteke.



Biltegia eta bulegoak: Meazzerreka 6 • Tf./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE  
Erakusketa: Otorra 1, behea • Tf. 943 79 07 20 • ARRASATE

**ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK**

## Goardiako farmaziak herrian bertan

Pasa den astelehenetik aurrera, Arrasateko zein Bergarako farmaziek, bakoitzak bere gaueko goardiak bete behar-ko dituzte Eusko Jaurlaritzak hartutako erabaki baten ondorioz. Izan ere, 1992. urtean Arrasate eta Bergarako botikarioek goardiak hamabostero txandakatzea erabaki zuten, euren esanetan jendea goardiako botikara askotan txiki-keria bila joaten zelako.

Baina erabaki honek prot-estak eragin zituen jendearen artean eta azkenean bi herrietako udalak ere ke-xatu egin ziren. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak debekatu egin die goardiak txandakatzen jarraitzea. Herri bakoitzak bere goardiako botikak izango ditu

## Epaileak amaitutzat eman du alkatearen kontrako auzia

Fernando Barreño Bergar-ko Lehen Auzitegiko epaile-ak amaitutzat jo du behin behingoz Arrasateko alkate-aren kontra SOS Arrazakeria elkarteak jarritako prebari- kazio auzia.

Epaileak sententzian dio-enez, Zaldispén bizi diren iji- to portugaldarrek hiru aldiz eskatu zuten erroldan sartzea eta ukatu egin zaie "udal arautegia betetzen ez dute- lakoa". Alkatea luzatzen ari da kasu hau epailearen ustez, indarrean dagoen lege- diaren kontra joanez behar- bada eta Udalaren Ongizate Sailaren gomendioei eta Arartekoarenei entzungor eginez. Hala ere, epaileak uste du ez dagoela prebari-



J. M. Loiti, Arrasateko alkatea.

kazio deliturik. Izan liteke, ordea, "alkateak legearen gainean egiten duen inter- pretazio okerra, arbitrarioa eta are diskutigarria"ren ondorio zuzena. Legearen aldetik zalantzak ditu epai- leak Loitiren erabakiaren

inguruan, baina ez du arbi- trariotzat hartzen. Ez du uste, gainera, borondate txarrez hartu duenik.

Alkateak berretsi egin du inori ez diola utziko —jato- rria, arraza edo erlijioa gora- beheara—. Legeak eragozten duen edozein tokitan bizito- kia ezartzen.

SOS Arrazakeriak elkar- teko kide den Alberto Enci- nasen esanetan, bestalde, Jose Mari Loiti alkateak pre- barikazio delitua egin du. Horregatik, elkarteak erre- kurritu egin du epailearen erabakia.

Bien bitartean, hamar por- tugaldarrek Zaldispén segi- tzen dute, behin behineko kanpatokian.



**Hona hemen Aretxabaletako Jose Joaquin Urrutiak irabazitako saria uztaileko bigarren zozketan.**

*Zorionak!!*



**RENAULT**

**MECA TAILERRAK**

Tel.: 943 79 50 12 (Arrasate) / 943 76 40 68 (Bergara)

# Zahar Berri: euskara euskaltegietatik kalera

Erdu-AEK, Udal Euskaltegia eta Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteek *Zahar Berri* izeneko egitasmoa aurkeztu zuten asteartean Monterron Jauregian. Egitasmo honen bitartez, Arrasaten euskara gehiago egin dadin nahi dute, izan ere, euskararen erabile-  
ra urtetik urtera goraka doan arren, elkarte hauen ustez gorakada hau ez da nahikoa. Euskara ikasleen kopurua Arrasaten geroz eta handiagoa dela gaineratu zuten. Hala ere, gutxi dira euskalduntzea bukatu eta euskaraz bizitzea lortzen dutenak. Ondorioz, asmoa da euskaldun zaharrak euskaldun berriekin harremanetan ipintzea.



## BERBA LAGUNAK ETA BERBA TALDEAK

Horretarako, euskaldun berrientzat berba-lagunak eta berba-taldeak aurkitzeko zerbitzua eskaini zuten astearteko prentsaurrearen bidez, hau xe baita euren ustetan euskaraz egunero bizitzeko euskaldun berri askok daukaten bide bakarra. Hemendik aurrerako

erronkak ugari izango direla ere gaineratu zuten, besteak beste, hizkuntza ohitura berriak sortu, euskalkiaren muga gainditu, lotsa kendu eta, kasu batzuetan, euskaraz norekin hitz egin aurkitu.

## SEI HILABETEKO ESPERIENTZIA

Orain urtebete hasi ziren egi-

tasmo hau antolatzen eta azken sei hilabeteotan, erduzko bost taldetxo eta talde handi bat eratu dituzte. Erduzko taldeetan euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak binaka edo hirunaka elkartu izan dira, euskaraz aritzeko. Talde handiaren bitartez, berriz, parte hartu izan dute euskaraz anto-

latuta dauden ekintzetan, irteera eta afarietan adibidez. Esperientzia hauek oso aberasgarri eta baikorrak izan direla adierazi zuten. Horrekin batera, animatu egin zituzten euskaltegietako maila altuetako ikasle guztiak eta baita euskaldun zaharrak ere, egitasmo honetan parte hartzera.

## Dirua kolektoreak egiteko

Eusko Jaurlaritzaren Garraio Sailak 1.500 milioi pta. emango dizkie Arrasateri eta Zumaiari, saneamendu lanak egin ditzaten. Arrasaten diru hori Deba ibaian kolektoreak egiteko erabiliko da.

Arrasateren kasuan, Deba ibaian ur zikinak bilduko dituen kolektoreak egi-

teko erabiliko da diru hau. Jakingo duzue, Eskoriatzan jarrita daude bete-behar hori izango duten kolektoreak. Aretxabaletan oraintxe ari dira lan horiek egiten eta Arrasaten egiteko dago oraindik. Zenbait tokitan, Takolon bezala, kolektoreak jartzeko azpiegitura egin da.

## Jabiloren lagunak lan eta lan

Maritxu Kajoi egunean txozna bat ireki zuten Jabiloren lagunek, han bildu zuten diru guztia Jabiloren familiari emateko asmotan. Jabiloren aitak lan egiten duen Uribesalgo enpresako langileak (74) ere ados jarri dira hainbat hilabetetan zehar hileroko bi lanordu (7.000

pta) emateko. Pasa den maiatzean Jabi Mayor gazte arrasatearrak koman utzi zuten arazoak izan zituen biriketetan-eta. Gaur egun Aita Menni ospitalean dago, tratamenduan. Familiak milioi bat pezetan ordaintzen du hileroko ospitaleko gastuak estaltzeko.

**BERGARA**

**① Udazken Kulturala**

Aurtengo Udazken Kulturala bihar hasiko da ofizialki Haurren Euskal Jaiaren 25. urteurrenaren ospakizunarekin. Urritik abendua arte kulturaren atal deberdinak jorratuko dira. Honela bada, musikari dagokionez, ohiko koru eta orkestren kontzertuez gain, aurtun, Bergarako Orfeoia eta gazte musikak aipamen berezia izango dute. Euskal zinemak ere bere tokitxo izango du Udazken Kultural honetan, eta baita argazkilaritzak, zeramikak eta margoek ere.

**ANTZUOLA**

**② Erretiratuen hamabostaldia**

Bergarako eta Antzuolako erretiratuek II Kultura Hamabostaldia egingo dute datozen asteetan. Antzuolari dagokionez, lehenengo ekitaldia hilaren 16an zine aretoan eskainiko den antzerki saioa izango da. Hilaren 22an, berriz, Antzuolako eta Bergarako ermitei buruzko hitzaldia eskainiko du Antxon Agirrek, Sorondoko zine aretoan.



**ELGETA**

**③ Etxe berriak hastear**

Salbador kaleko bukaeran eta Domingo Iturbe kaleko hasieran egin behar diren etxebizitzetan lanak, urria eta azaroa arte-

an hasiko direla uste du Elgetako Udalak. Domingo Iturbe kaleari dagokionez, lanak egin behar duen enpresa, etxeak saltzeko zain dago lanak hasteko. Eta Salbador kaleko etxebizitzetara dagokionez, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak

lau etxebizitza egiteko eman behar dion baimenaren zain daude.

**ARETXABALET**

**③ Kolektorearen lanak**

Pasa den astelehenean berriz hasi ziren Deba ibaiaren urzikinentzat Aretxabaletan eginen ari diren kolektorearen lanak. Kolektore hau, Eskoriatzatik Arrasateraino joango da, Eskoriatzari dagokion lan zatia maiatzean bukatu zen. Oraingoan, aldiz, lan hauen bigarren fasea hasiko da.

**OÑATI**

**④ Master berriak**

Asteartean, Oñatiko Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutuan 98-99. ikasturteari hasiera eman zitzaion. Aurtun, urritik martxora bitartean mundu osoko hainbat irakasle, 15 master emango dituzte institutu honetan, hori dela eta, eskola gehienak ingelesez emango dira. Hurrengo sei hilabeteetan, berriz, ikasle bakoitzak aukeraturako gaiari buruzko lana prestatu eta aurkeztuko du. Oraingoan hamahiru ikasle emango dute izena.



**URONDO**  
Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



# Zarraoa lurrindegia, birmoldaketaren eredu

Iturriotz kalea eta Kanpatorpea batzen dituen izkinan aurki dezakegu Zarraoa lurrindegia. Den den, mondragoetar askoren artean "El Arca de Noe" bezala ezagunagoa da, antzina produktu asko saltzen zituelako. Orain dela bost urte, ordea, espezializazioari ekin eta, gaur egun, larruzko produktuak eta lurrinak baino ez ditu saltzen.

Historia luzea du Zarraoak. Izan ere, orain dela berrogeita hamahiru urte ireki zituen ateak dendako jabea den Arantxa Zeziagaren amak. Orain Arantxak berak kudeatzen du denda, nahiz eta jubilatzeaz egon. Zuzendaritza lanetan Ignacio Gallastegi du lagun, eta baita honen alaba Miren.

Dendaren izenaren inguruan bada zer kontaurik. Izan ere, Zarraoa lurrindegia bost urte besterik ez dituen izena da. Aurretik "El Arca de Noe" deitzen zen, baina Bilbon ba omen zen izen bereko dendarik, eta bilbotarrak azkarrago



Atzean geratu dira "El Arca de Noe"ren egunak.

ibili ziren izena erregistratzerakoan. Horrela bada, Justiziak izena aldatzera behartu zituen eta Zarraoatarrek hala egin zuten, egungo izenarekin bataiatuz.

Hala ere, eraldaketa gehiago ere izan zen eta, izenaz gain,

denda bera ere eraberritu egin zuten. Mirenen esanetan, emakume helduak dira erosle ohikoak, nahiz eta gizonak ere bertaratu. Bestalde, pozik daude dendak izandako ibilbidearekin, eta urte guztiotan bitxikeria zenbait ezagutu dituzte.

Behin, adibidez, Arantxari lukainka eskatu zioten, eta beste batean Mireni gizon batek betaurreko beltzak eskatu zizkion, gauean autoan zihoanean aurrez etortzen zitzaizkion autoen argiek itsutzen bide zutelako.

**Ikas ezazu dantza egiten Nayrelisekin**



Anima zaitez !!

**ATERPEN**

**Dantza afroamerikarrak**

**Son** - Salsa - Cha,cha,cha - Kubako erritmoa -  
- Runba - Rueda kasino-Koreografiak -  
- Kabaret teknikak -

**Matrikula epea zabalik daukazu!**

**ORDUTEGIAK:**

**Larunbatetan:**

Goizeko 11:30etatik 13:30etara  
Arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara

**Astelehenetan**

22:30etatik 00:30 etara

Eman ezazu ikastarorako izena Aterpe Kafetegian  
(Amaia antzokiaren ondoan)

Tel.: 943 77 03 87

# Jogurtaren prezioa, gerra komertzialaren ispilu

Arrasateko supermerkatuen arteko lehia gogorra da, eta horren erakusle jogurtaren prezioak dira. Ahalik eta erosle gehien erakarri nahian, jaitsi egiten dituzte jakien salneurriari. Gerra komertzial honetan kontsumitzaileak dira, batez ere, irabazten irteten direnak. Galtzaile nagusiak, berriz, dendari txikiak, hauek ezin baitira Eroski edota Dia bezalako saltoki erraldoiekin lehian sartu, ez bada Landaluze bezalako denda oso

espezializatuen kasuan. Dena den, jogurtaren erosleak zer erosi nahi duen argi eta garbi dauka: kalitate oneko produktuak gozoa izateaz gain, salneurri egokia behar du izan.

Baina oraindik ere merkari bakarrik so egiten dion eroslerik bada, supermerkatu bateko arduradunak aitortzen duenez.

Aipatzekoa da, bestalde, saltokietako hozkailuetan pilatzen diren jogurtaren aukera handia. Jogurt ekoizleek gero eta produk-

tu zerrenda zabalagoa eskaintzen dute, baina erosle gehientsuenek betiko jogurtak eskuratu ohi dituzte.

Era berean, mondra-goetarrek Euskal Herrian ekoizturiko jogurtak erosleko ohitura dute, akaso merkeagoak direlako. Azkenik, salatu behar da denda batzuetan ez dituztela jogurtaren prezioak agerian jartzen, nahiz eta kasu guztietan iraungitze data esnekiaren goialdean argi eta garbi ageri.

# Euroa

## Bi txeki taloitegi behar izango ditut?

Erabilgarria izan liteke, baina ez ezinbestekoa. Batekin ere egingo duzu. Jasotzen baduzu faktura bat eurotan eta txekia, berriz, pezetatan egiten baduzu, bankuak bihurtuko dizu dirua modu automatikoan. Hasteko, jasotzaileak eskubidea du dirua jasotzeko berak jarritako monedan. 1999 eta 2001 artean, hau barne, zuk erabakiko duzu. Hiru urte horietan diru batean edo bestean egin ditzaitez ordainketa guztiak, beraz taloitegi batekin nahikoa izango duzu. 2002ko urtarilaren aurrera, ostera, eurotan bakarrik egin ahal izango dituzu txekiak.



**Euro baten balioa**

**167,3 PTA**

## Danone Bio Jogurt Naturala

Saltokia

Prezioa (pta)

• Dia .....	197
• Landaluze .....	366
• Super BM .....	232
• Eroski .....	154



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA



**DOCKERS®**  
pants by  
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# MARITXU KAJOI 98



Konponbide  
garaia da!

18:30etan

**Buzkantzak eta tortilak**

07:00etan

**Mitina**

Txalaparta eta trikitixaz  
lagunduta.

**Hizlariak: Jose Iriarte Bikila  
eta Arnaldo Otegi**





**Euskal Herriarrok**

## MITINA


Arrasaten,  
urriaren 14an, asteazkena,  
Herriko plazan



Maritxu Kajoi egunean eskubete lan egin zuen Marcelino Gonzalez Foto Imagen etxeko argazkilariak. Aspaldiko Citroen bat hartu, fondo bat ipini, fokoak piztu eta... makina bat argazki atera zituen arratsaldeko 19:30etatik 02:20ak bitartean, udaletxeko arkupeetan. Gehigarri honetan agertzen diren guztiak bereak dira. Izan zuen arrakasta ikusita, dagoeneko ari da datorren urtekoa prestatzen.







**Urriaren 14an  
berriro zuekin**



## Elisabeth Kirolak berriro irekiko da!

Orain ASTORE eta TERNUA kirol  
jantziak haur eta  
gaztetxoentzat zure esku

Udazken-neguko kirol jantzien  
moda berri-berria!

**Elisabeth Kirolak,  
zutaz arduratzen  
gara!**

Zain gaituzu!

Araba Etorbidea, 18 • ARRASATE  
(San Andreseko geltokiaren ondoan)  
Tel.: 943 77 14 85




# LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA

**ADI!  
URRIAN  
ZABALDUKO  
DUGU!**

## Emakumeari zuzendutako tratamendu pertsonalizatuak



Bizkarra zuzentzeko gimnasia.

**Edertasuna zaintzeaz gain, zure osasunaz ere arduratuko gara LIRAINen.**

**ESTETIKA** eta edertasuna zaintzeko zerbitzu zabalena eskainiko dizugu LIRAINen: gorputz eta aurpegi tratamenduak, depilazioa, dietak... Zure gorputzarekin gusturago sentitzen lagunduko dizugu.

**OSASUNA** eta edertasuna bana ezinak dira. Hori kontuan izanda, LIRAINek osasun tratamendu pertsonalizatuak eskaintzen dizkizu: kontrol medikua, kirolak, masajeak, era askotako bainuak...



Erditu aurreko eta ondoko gimnasia.

- 300 m<sup>2</sup>z gozatzeko aukera.
- 14 laguneko talde profesionalena.
- Astelehenetik igandea arte zure zerbitzura.

**Bixente Ferrer, 1  
ARRASATE**

**Tel.: 943 79 52 17**

(Sarrera: Mondragon Hotelaren ondoan)

Taldeak osatzen ari gara. Eskaintza zabalena dugu, informa zaitez!

## URETAN ITO BEHARREAN

Musakolako Gazte Txokoko gazteek ustekabeko galanta izan zuten txokoaren laugarren urteurrena ospatzen zuten egunean bertan. Kanpoaldea ezezik, txokoa ere urez bete zitzaien. Ondo bustita bukatu zuten eguna!





## LIZARDI BERRIAK

Urruzuno Literatura Lehiaketa medio, Nerea Makazaga eta Iraitz Agirre Hungarian zehar ibili dituzte hamar egunez. Hemen, Hungariako Heroien Plazan Lagun asko egin dituzte eta pozik etorri dira.

## SAN MIKEL OTARRA

Garagartzako jaietan zozkatu zen otarrak badu irabazlea: 0052 zenbakia zeukan Edurne Erauskin, SFX Ikastolako zuzendaria. Saria bere auzoak eman zion, Alejandro Mendizabal Garagartzako alkateak alegia. Otarra irailaren 27an, domeka, zozkatu zen Garagartzan egin zen herri bazkarian.



**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56

**PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua


**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**“PAL”**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE






## ORIOKO TRIKITIXAREKIN DANTZAN


Itziar, Nerea eta Arantza trikitilariak jendea dantzan eta kantuan jarri zuten Garagartzako jaietan. Arratsaldeko zazpi t'erdietatik aurrera, jo eta fuego ibili ziren txikiteoa alaitzen. Oriokoak dira, abenduan hasi ziren taldean jotzen eta Arrasaten jotzen zuten lehen aldia zen. Bikain.

## TXIRRISTAN GORA, TXIRRISTAN BEHERA


Irailean, ATBko "Kukaratxa Motel" saioko irabazleak Port Aventura aldean ibili dira, Ekuador Bidaiak-en eskutik. Begirale lanak egiten Txatxilipurdiko Errukane izan zen. Ederto pasatu omen dute eta argazkian ikusten den bezala, denbora gehiago pasatu dute bustirik siku baino.



Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 943 79 87 62



**EGUZKI GRAF**  
inprimategia



Industriaaldia F-0-4  
Telefono: 791841  
Faxa: 792941

**Plus Ultra  
taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57

## UNAI ETXEBARRIA (EUSKADI-EUSKALTEL TALDEKO TXIRRINDULARIA)

# “Nire lehenengo itzulua izateko

**H**ogeita sei urte bete behar ditu. Durangon bizi da, baina Venezuelan jaio zen. Txirrindularitza profesionalean bi urte daramatza eta gaur egun Euskadi-Euskaltel taldean arida, Julian Gorosperekin agindupean. Unai Etxeberriak bi etapa irabazi zituen Portugalgo Itzulian. Gustura dago oraintsu amaitu den Espainiako Itzulian egindakoarekin. Igandean Granadan izan zen denboraldiko azken lasterketan.

— **Nolatan Venezuelan jaio?**

— Jaio han egin nintzen. Nire gurasoak Venezuelara joan ziren eta neuk bost urte egin nituen han. Hemezortzi urte izan arte gurasoek ez zidaten aldatu nahi izan nazionalitatea, neuk hauta nizan. Gero, eta soldaduzka kontuetan ere hobe denez, venezuelarra izaten segitu dut.

— **Horri esker iaz Donostian jokatuak mundialetan parte hartu zenuen?**

— Venezuelako selekzioarekin aritu nintzen Donostian eta gustura ibili nintzen. Aurtan ere Espainiako Itzuliaren amaieran etorri zitzaizkidan, esanez aurtan ziur korrituko nuela, baina nola eurek beti esaten duten ziurra dela, ikusi egin behar. Gustatuko litzaidake parte hartzea, baina ez dut sinisten.

— **Denboraldia amaitzeko gogorik bai?**

— Asteburu honetan izan dugu azken lasterketa, Granadan. Uste nuen Espainiako Itzuliaren ondoren amaituko genuela denboraldia, baina hau ere egin behar zela eta, hara joan ginen. Orain oporrak hartzeko aprobetxatuko dut.

— **Espainiako Itzulian egindakoarekin gustura?**

— Nire lehenengo itzulua izateko, gustura nago. Piska bat luzea egin zait azkenengo astea, baina bestela oso ondo.


— **Espainiako Itzulian irailan ala martxoan?**

— Nahiago martxoan, denboraldia lehenago bukatuko litzateke eta. Baina neuhobeto ibiltzen naiz denboraldi amaieran.

— **Olanoren kontua nola bizi izan da tropelean?**

— Kanpotik gehiago ikusten da guk barrutik baino. Hala ere, uste dut zarata handia eman zaiola horri. Guk bada-kigu nolakoa den Jimenez eta diru asko dagojokoan... Azkenean, ordea, Olanok irabazi du eta listo.

“Gorospek konfiantza izan du nigan eta espero dut datorren urtean ere horrela egingo duela”



# gustura nago”

— **Portugalen ere izan zinen.**

— Espainiakoan baino hobeto. Hamalau egun izan ziren eta bi etapa irabazi nituen. Gustura nago egingakoarekin, nahiz eta beti nahi izaten den gehiago!

— **Euskadi-Euskaltel taldean gustura zabilta?**

— Ona da zure inguruko jendearekin lan egitea. Betiko tirabirak izaten dituzu, baina orokorrean ondo konpontzen gara. Denak hemengoak gara. Betidanik aritu zara eurekin lasterketetan eta hori oso ona da.

— **Zer dauka Euskal Herriak, horren txirinduzale mordoak izateko?**

— Jende asko dago eta gainera oso ona, baina guztientzako lekuri ez dago. Oso maila handia dago, kalitate handiko txirindulariak ditugu hemen.

— **Durango bizi izanda, non entrenatzen duzu?**

— Han gauza bat dugu ona: profesional asko biltzen gara. Errepidera ateratzen garenean, tropelean joaten gara. Iurretan biltzen gara ordu jakin batean eta kostalderantz (Lekeitio eta Ondarrru aldera) edo Gasteiz aldera joaten gara. Trafikoa dela eta, geroz eta gutxiago joaten gara Kanpazar eta Bergara aldera.

— **Ingeniaritza ikasketak lagatzea gogorra izan zen?**

— Urte asko egin nituen Arrasaten ikasten, baina bizi-

kletarekin batera ikastea gogorra egiten zitzaidan. Afizionatuetako azken urtea oso zaila izan zen. Profesionaltara pasatzean, beste zentru batean matrikulatzekotan egon nintzen, ikasgaiak banaka ateratzeko, baina hori ere zaila zen. Txirindularitza lanbide bezala planteiatzen duzunean, beste modu batean begiratzen diozu; azkenean gauza politenekin gelditzen zara. Politik badago, noski! Profesionaltan oso zaila baita hori ere.

— **Tourrean gertatutako iritzirik bai?**

— Nire ustez, norbaitek txirindularitzaren aurka jo nahi izan zuen.

— **Datorren urtean, zer?**

— Mallorcan hasi nuen denboraldia eta nahiko indartsu hasi nintzen. Gero lesio bat izan nuen eta denboraldi amaieran berriz ere indartsu aritu naiz. Gorospek konfiantza izan du nigan eta espero dut datorren urtean ere horrela egingo duela.

— **Zelango lasterketak dituzu nahiago?**

— Oso menditsuak ez. Hemengo mendateak hobeto igotzen ditut. Esprinetan ondo aritzen naiz talde txikian.

— **Gustuko txirindularirik?**

— Mussew, baina dagoeneko erretiratu da. Bartoli ere oso ona da. Euskaldunen artean, Aitor Garmendia, Mikel Zarrabeitia... oso jende ona dago. ■

## Orain, metalurgian ere emakumeak



Beste lan irtenbide bat: emakumeak orain buzoarekin

### Emakumeei zuzendutako soldadura ikastaroa antolatu da

# Jantzi buzoa zuk ere

Soldadura teknikak ikasi eta enpresetan praktikatzeko ateak zabalik dituzue.

**Ikastaroaren iraupena:**

Azaroaren 2tik  
martxoaren 31ra arte. (400 ordu)

**Ordutegia:**

14:00 -18:00 (astelehen, astearte, asteazken, ostegun, ostirala)

**Plaza mugatuak (15)**

**Izen ematea:** urriak 15

**Antolatzailea:**  
Enplegu Zerbitzua



ARRASATEKO UDALA

**Laguntzailea:**  
Emakume Saila

Emakume Saila ■  
Enplegu Zerbitzua ■

# Umezaintza: gehia

Arantxa Lejarraga Umezaintzako zuzendariak dioenez, "zentruak bi egiteko betetzen ditu. Batetik hezkuntza zentrua da, ikastola, eta bestetik haurtzaindegia". Arrasaten eta inguruetan zentru hauek duten eskaera geroz eta handiagoa da. Arantxak argi dauka: "Nahiz eta politikoez eta erakundeek ez ikusi 0-3 urteko haurrak eskolatzeko beharrik, gizartearen sekulako eskaria dago. Jaiotze tasa asko murriztu da, baina eskaintza zabalagoa da eta premia hori ikusten delako, geroz eta ume gehiago datoz adin horretan eskolatzeko".



Kontxiren gelako neska-mutikoak ipuin saioa adi-adi entzuten.

**H**iru faktorek eragiten dute nagusiki fenomeno honetan: hizkuntzaren garapena (lehenengo unetik euskaraz); bigarrenik, psikologikoki eta pedagogikoki lehen hiru urteak garrantzitsuak direlako haurren eskemak finkatzeko; eta hirugarrenik, orain dela urte batzuk arte sozializazioaren inguruan familia batetzen zuen egitekoa, gaur egun haur hezkuntzako zentruak betetzen dutela, neurri handi batean.

Arantxaren ustez, "familia gehienetan familia bizitza arratsaldeko 19:00etatik aurrera egiten da eta ordu horietan, egia esan, oso gauza gutxi egin daiteke. Orain umeen eta helduen arteko elkarbizitzaren eredu ona eta garbia hemen egiten da. Uste dut kaleko jen-

deak badakiela hori: zenbat eta lehenago eskolatu, mesedegarria dela bai umearentzat eta bai familiarentzat".

Baina gizartearen ematen ari den aldaketa hau, badirudi erakundeetan ez dela horren argi ikusten. 1991n LOGSE legea atera zen arte, Euskal Herriko haur eskolak gizarte zerbitzuak ziren. Ordu arte aldundiek ematen zien diru laguntza zentru hauei. Baina orain dela zazpi urtetik hona, haur eskolak Eusko Jaurlaritzaren ardurapean jarri ziren. Gauzak honela, eta Gipuzkoako haur eskolei dagokienez, aldundiak moztu egin nahi dizkie diru laguntzak. Etena hala ere, ez da bat-batekoa izan. Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urtebete daramate Eusko Jaur-

laritzako Hezkuntza Sailarekin harremanetan, zentru hauentzako diru iturrien inguruan berbetan. Baina Arantxa Lejarragak dioenez, "Eusko Jaurlaritzak 2001. urtea arte ezer ez egitea erabaki du lehen zikloko (3 urte artekoak) haur eskolen inguruan".

Gauzak horrela, haur eskolatan ez dago oso argi nola egingo duten aurrera, beste diru iturririk aurkitzen ez bada.

Lehen aipaturiko matrikula eskaerak, gela berri bat irekitzea ekarri dio Umezaintzari. Orain arte Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen zuten diru laguntza murriztu egin denez, hobetze lanek aurre egin ezinako gastuak ekarri dituzte. Umezaintzak 7 milioi pta.ko zorra bildu du urtariletik abuztura bitartean eta horri aurre egi-

teko, edo behintzat ikasturte berrian zehar zorra hazi ez dadin, igo egin dute bazkide edo guraso bakoitzak ordaindu beharreko dirua.

## KONPONBIDE ARRISKUTSUA

Gurasoetako batzuek azaldu digutenez, prezioen igoerak arazo larria izan daiteke familia batzuentzat. Adelaida Maidaganen ustetan "prezioen igoerak Umezaintza zentru elitista bihurtzea ekar lezake".

Arantxak dioenez, "inork ez du esaten guztiz dohainik izan behar denik, azkenean derrigorrezko etapa bat ez delako eta eskolatzeko orokorra ez delako ematen. Hori dela eta, gurasoek zati bat ordaindu beharko lukete eta beste zati bat Hezkuntza Sailak eta udalak, egiteko sozial bat betetzen duten neurrian, zeren eta

# go ordaindu behar



1997aren amaieran jaiotakoak Pili eta Mirenekin jolasten.

inork ez badu laguntza handiagoa ematen, kuotak asko igotzerakoan, gizartearen zati bati ukatu egin diogu haurrentzat eta familientzat onuragarria den zerbitzua”.

## UDALAREN JARRERA

Umezaintzak duen arazoa dela eta, denbora dexente daramate Arrasateko Udalarekin harremanetan. Umezaintzako arduradunek diru gehiago eskatu diote udalari (“orain arte eman duena beste haur eskolek jasotzen dutenarekin konparatuz, oso gutxi izan delako”) eta honek datorren urteko aurrekontuetan bi milioi pta.ko partida berezia ematea erabaki du.

Udaleko Hezkuntza batzordeburua den Jabier Nafarratek dioenez, “udalak lagundu egin behar du, zen-

truak eginkizun garrantzitsua betetzen baitu, baina bazkide sariak ere igo egin behar dira. Hala ere, udal hauteskunderak pasatu arte, ezin da erabakirik hartu. Gainera, onena litzateke Eusko Jaurlaritzak bere kargu hartzea arazoa”. Udalak hala ere, Umezaintzako 0-3 zikloko haurrentzako gela egin zuen eta horri esker, Umezaintzak adin horretako hezkuntza emateko baimen ofiziala eskuratu zuen.

## ETORKIZUNARI BEGIRA

Hezibide Elkartea etorkizuneko proiektu bat lantzen ari da, ikastetxeak ibil ez daitezkeen bakoitza bere aldetik. Umezaintzak ere izan dezake hortxe bere etorkizuna, laguntza publikoak baztertu gabe. Hala ere, eta Umezaintzako urte bat eta bi urte arte-

ko umeen gurasoetako batek dioenez, “urte bateko 10 ume-ekin, bi pertsona behar dituzu derrigorrez eta hor bi soldata doaz, azpiegitura kontuan hartu gabe. Bazkide sarien igoerak kontuak nolabait garbitzeko balio dezakeen arren, aurrerantzean Hezkuntza Sailak eta gizarteak elkarlanean aritu beharko dira, azken finean Haur eskolak bi arlo horiek betetzen ditu eta. Hala ere, gurasoek lan asko egin beharko genuke aurrera egiteko. Egoera latza bizi genezake, baina emaitzak ikusita, merezi du aurrera egitea”.

## UMEZAINZAREN HISTORIA

Umezaintza ikastetxea 1970ean ireki zen Arrasaten. Hasierako urte haietan Iturripen egon zen haur eskola hau, urte batzuk beranduago tren

### Bazkide Sarien igoera

(Pta hilero) Lehen Orain

Sehaska ... 31.200 ... 38.200

1-2 urte ... 15.600 ... 21.600

2-3 urte ... 9.017 ... 11.100

3-6 urte ... 9.017 ... 9.700

### Haur kopurua, urteko

1970-71 ..... 10

1975-76 ..... 68

1980-81 ..... 103

1985-86 ..... 145

1990-91 ..... 188

1993-94 ..... 224

1994-95 ..... 202

1995-96 ..... 200

1996-97 ..... 204

1997-98 ..... 200

1998-99 ..... 213

geltoki zaharrera pasatu zen arte. INEM dagoen eraikuntzatik Altamirako etxe azpiegitara joan behar izan ziren irakasleak eta haurrak. Azkenean, gaur egungo eraikuntzan ezarri zuten haur eskola, baina San Josepera ez ziren neska-mutiko guztiak batera joan. Hiru urte arteko haurrak Altamiran gelditu ziren, eurentzat eraikuntza berri bat eraiki zen arte, gaur egungo zentruan. San Josepekoa garai batean auzoko herri eskola izan zen. Udalak txikienentzako eraikuntza bat egitea erabaki zutenean, neska-mutiko guztiak haraxe eraman zituzten.

Gaur egun eraikuntza eta lur saila udalarenak dira, nahiz eta Umezaintzako eskola kooperatiba bezala kudeatu. ■

Marijo Deogracias

Motorzalea, Arrasateko motokross txapelketan 5. izan zen

## PACO CARMONA

*“Egia esan, herrian aritzeak badu bere xarma eta lortutako emaitzarekin ere gustura nago”*

— Zeu izan zinen arrasatear bakarra irailaren 27ko txapelketan. Gustura lortutako emaitzarekin?

— Bai, egia esan, herrian aritzeak badu bere xarma eta lortutako emaitzarekin ere gustura nago. Gainera, lehenengo itzulian bi aldiz erori nintzela kontuan izanik, bosgarren gelditzea gustura egoteko modukoa da.

— Aspaldi ez zen egiten txapelketa hori. Zergatik aurtzen?

— Hamabost urte ziren ez zela egiten eta bospasei urte generamatzen udalean proposamena egiten. Hemendik aurrera eta ondo atera dela ikusita, gehiagotan lagako digutelakoan nago.

— Beste txapelketaren batean hartu duzu parte aspaldian?

— Euskal Herriko txapelketan lehenengo aldian zen. Bestela, hor zehar antolatzen diren lasterketetan aritu naiz inoiz.

— Denbora luzea daramazu kirol hau egiten?

— Esan daiteke bizitza osoa daramadala motorrean. Kirol bezala egiten, ordea, orain dela urte eta erdi edo, hasi nintzen.

— Maila handia dago Arrasaten eta inguruetan?

— Maila ona badago, baina Arrasaten ezin dugu hori esan, neu bakarrik ari naiz eta. Gainera, zirkuiturik ez egotean, zaila da afizio handiagoa egotea.

— Garestia delako akaso?

— Beno, garestia baino, bitarteko gutxi dago. Nik orain Zigorrolan daukat zirkuitua eta sekulako

aldea da. Lehen Altsasura joan behar izaten nintzen eta denbora izugarria galtzen nuen: gimnasioa, entrenamendua... Zirkuitua hemen izanda, askoz ere hobeto, nahiz eta egokiena izan zirkuitu ezberdinetan aritzea.

— Askotan entrenatzen duzu txapelketa-rako?

— Lehenik eta behin, federatu egin behar zara eta antolatzen diren lasterketa guztietan hartu behar duzu parte. Entrenamendu gehienak, egia esateko, asteburuan egiten ditut.

— Arrasaten ba dago zirkuitu egokirik honelako kirola egiteko?

— Orainsu egokitu dute Zigorrolakoa, baina dagoeneko errugbi zelaia hortxe egingo dutela esan dute. Guk bitartean hortxe entrenatzen lagatzea eskatzen dugu. Abuztuan ez uztea ulertzen dut, igerilekuetako urarekin sekulako lokatza egiten delako, baina bestela, kanpoan dagoen leku bat da eta inori ez diozu kalterik egiten.

Esaterako, ondoko saltokikoek zarata handia dagoela esango balute, akordio batera ere irits gintezke, entrenamendu egunak ezarriz. Hala ere, Arrasaten oso “berde” dago kontua.

— Zer da gehien atsegin duzuna kirol honetan?

— Jauziak egiteaz gain, hori baita gehien atsegin dudana, txapelketaren inguruko giroa gustatzen zait: egun osoan zehar parte hartzaileak batera gaude, leku guztietan biltzen gara... Betidanik gustatu izan zait motorren esparrua.



## SASKIBALOIA Garaipena Iturripen




Denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuen Arrasate Eskubaloitaldeak asteburuan. Goierri taldearen aurka fin aritu ziren Azkarate eta Aiastuiren mutiak eta 98-89 irabazi zuten. Aste honetan Ceramicas Apolaza taldearen aurka arituko dira larunbatean, Gasteizen.

## FUTBOLA Banakoa eta aurrera



Preferente mailako Mondra taldeak bana berdindu zuen Atxabalpen Orioren aurka. Saiatu ziren etxeok Agirre atezainari golak sartzen, baina azkenengo minutuetan lortutako golarekin konformatu behar. Igandean Stadium Gal futbol zelaian jokatuko dute, Real Union irundarren aurka, 17:00etan.

## ERRUGBIA Lagun arteko partidak



Denboraldia hasi aurretik entrenatzeko, Arrasateko errugbi taldeek lagun arteko norgehiagokak jokatuko dituzte. Seniorrak Elorriora joango dira larunbatean, 16:30etan jokatuko dute eta. Bestalde, eta gazte mailan, Igorren jokatuko dute Arratiako Txekorren aurka. Partida larunbatean izango da, 11:30etan. Beteranoek etxean jokatuko dute euren partida. Aurrez aurre Galiziako talde bat izango dute. Partida igandean 16:30etan izango da.

# Arrasate Eskubaloi Taldea berriztuta

**Arrasate Eskubaloi taldeak fitxaje berriak ditu. Ia talde osoa gazte mailatik igotako jokalariekin osatu dute.**

Larunbatean izango dute ligako partida. Oreretako Ereintza taldearen aurka arituko dira. Partida Oreretan jokatu

da, arratsaldeko 19:30etan. Argazkietan daudenez gain, taldean beste jokalarri hauek ari dira.

**Gorka Martin**, atezaina,  
**Angel Moraleja**, hegalekoa,  
**Iñaki Larrea**, hegalekoa,  
**Urtzi Zuazubiskar**, pibotea.



**Beñardo Balerdi**  
Entrenatzailea



**Migel Salterain**  
2. entrenatzailea



**Aitor Gartzia**  
Hegalekoa  
18 urte



**Asier Kortabarría**  
Erdilaria  
26 urte




**Jon Iraola**  
Hegalekoa,  
26 urte



**Jonan Eskibel**  
Hegalekoa  
18 urte



**David Manso**  
Erdilaria  
21 urte



**Igor Reguero**  
Hegalekoa,  
21 urte



**Mikel Loiti**  
Pibotea  
26 urte



**Manuel Carrasco**  
Pibotea  
32 urte



**Imanol Carmona**  
Atezaina  
21 urte



**Aitzol Okina**  
Atezaina  
18 urte



**Aitzol Velasco**  
Hegalekoa  
22 urte



**Oskar Gartzia**  
Pibotea  
19 urte

**TXOKO  
TABERNA**

*Eure berezitasunak pintxo eta  
mckau gozoak*

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

# Begirale ikastaroak

Txatxilipurdi haurren aisialdiaz arduratzen den erakundea da. Duela hamar urte inguru sortu zen, AED elkartearen barruan. Orduantxe egin ziren lehenengo udalekuak ere, eta ildo horretatik sortu zen Txatxilipurdi.

Hasiera batean, AEDren barruan haurren ekintzez arduratzen zen saila zen. Harrezkero bide luzea egin du Txatxilipurdik, ordea. Goizane Jausoro Txatxilipurdi idazkari eta administrazioko lanak betetzen dituenak esan bezala, "handituz eta sendotuz joan da, elkarte izatera iritsi den arte".

Helburu nagusizat haur eta gazteengan euskararen normalizazioa bultzatzea du Txatxilipurdik. Hainbat ekimen eramaten dira aurrera hori lortzeko. Egunerokotasunean gazteen eskura dauden zerbitzuek funtsezko garrantzia dute horretan. Adibidez, erdialdean eta Santa Marinar haurrentzako ludotekak daude, eta baita gazte txokoak ere San Andresen eta Musakolan. Gazte txoko hauek 12 urtetik 16 urtera bitarteko gazteen topagune dira, eta Goizanek esan digunez, "hiru helburu nagusi dituzte: gazteen arteko komunikazioa bermatzea, euskararen erabilera bultzatzea eta norberaren gustuko ekintzak antolatzeko gaitasuna bideratzea".

Dena den, urtean zehar ere bada beste ekimenik: larun-



Arrasateko neska-mutikoak Garioko udalekuetan.

batetan egiten diren ikastolaz kanpoko ekintzak, uztaileko udalekuak... Horiek guztiak izan ditu bidezior Txatxilipurdik hamar urteko ibilbide luzean.

Aurten berregituraketa bizi izan du Txatxilipurdik langileen sailari eta ekintzei dagokienez. Orain arte bi pertsona zeuden idazkaritzan; gaur egun, berriz, elkarte sailka banatuta dago erakundearen beharrei erantzun egokiagoa emateko asmoz. Sail ezberdinek finkatzearekin batera, horietako bakoitzari egin behar zehatzak jarri zaizkio. Era berean, antolaketa horizontala bultzatu nahi izan du eraberrikuntza honekin. Hots,

"elkarte" filosofia garatzen saiatu, argi utzita guztien ahalginen baturak ematen duela azken fruitua.

## BEGIRALE IKASTAROAK

Berriki, joan diren zortzi urtetan egiten den begirale ikastaroa ere antolatu du Txatxilipurdik. Urtean zehar erakunde honen barnean lanean aritu nahiko luketen begiraleei dago zuzenduta ikastaro hau. 18 urtetik gorako edozein gaztek hartu ahal izango du parte ikastaroan. Urriaren 17an hasi eta maiatzera bitartean irauango du, eta larunbat guztietan emango da, goiz eta arratsaldean.

Guztira 200 ordu dituen

ikastaro hau Txatxilipurdik antolatu duen arren, beratu emanango duena Urtxintxa ikastola da. Izan ere, begiraleen heziketari dagokionez, Urtxintxa ikastola ofiziala denez, bera da Eusko Jaurlaritzak homologatutako aisialdiko begirale titulua ematen duena. Izena eman nahi duenak 943 79 54 46 telefonora dei dezake, edo bestela AEDn ere eman dezake izena. Ikastaro honekin aurrerantzean haurrek inibiliko direnek nolabaiterako oinarria izan dezatela bilatu nahi da.

Ea bada, haur eta gazteen jolasten jarraitzeko bidean luzaroan urratsak eginez jarraitzen duen Txatxilipurdik. Argazkikoek eskertuko dute.

### ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritizitatea eta logopedia.
- Tratarera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE



MARGA GARMENDIA, UDALEKO ENPLEGU TEKNIKARIA

## Soldadura ikastaroaz hizketan

**Marga Garmendia 35 urteko aretxabaleterra da. Udal teknikari lanak betetzen ditu Arrasateko Udalean. Pertsonal Sailean egiten du lan, Enplegu Zerbitzuan hain zuzen ere. Berak eman digu Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzuak berak antolatu duen soldadura ikastaroaren berri.**

**— Zergatik antolatu duzue emakumeei bakarrik zuzendutako ikastaroa?**


— Lan merkatuak soldatzaileak eskatzen ditu eta langabezian dagoen jendeari arlo horretan prestakuntza bat emanez gero, hori lagungarria izango zaio lan bat bilatzerako orduan. Bestalde, badira pare bat urte soldatzaile ikastaroak ematen direla Oñatiko industrialgunean, baina orain arte gizonezkoek bakarrik eman dute izena. Metalurgian, emakumezkoen presentzia oso txikia da. Hori kontuan hartuta eta emakumeen artean langabezia askoz handiagoa denez, langabezian dauden emakumeei lan merkatuan asko eskatzen ari den langintza batean trebatutako prestakuntza eman nahi izan diegu.

**— Zein helburu lortu nahi dituzue ikastaro honen bidez?**

— Emakumeek lanpostuetara sarbidea izatea eta metalurgia arloan emakumezkoen presentzia areagotzea.

**— Aurretik gizarteko sektore bati zuzendutako ikastarorik eman duzue?**

— Bai. Enplegu zerbitzuetatik antolatutako ikastaro ia guztiak langabetuei soilik zuzendutakoak dira. Aitzitik, emakume edo gizonezkoen zuzendutakoak bakarrik hain garbi ez dira eman orain arte, baina sexu bati edo besteari eman izan zaio lehentasuna.



**— Ikastaroak zein iraupen izango du?**

— Azaroaren bian hasi eta martxoaren 31n bukatuko da. Asteke egun guztietan emango da arratsaldean, lauretatik seietara. Izena emateko epea urriaren 15ean bukatuko da, eta udal-txeko enplegu zerbitzuan eman beharko du izena ikastaroan parte hartu nahi duenak.

**— Zenbat pertsonako taldeak osatuko dira?**

— 15 pertsonako taldea osatu beharko da. Jadanik pertsona gehiagok izena eman duenez, aukeraketa bat egin beharko da. Aukeraketa egiteko ez da irizpide bakarra erabiliko. Dena den, aukeraketa prozesua nola joango den ez dago guztiz zehaztuta.

**— Enpresek nolako jarrera hartuko dute ikastaro honen aurrean?**

— Inguruko enpresekin izan ditugu harremanak, eta jada ikastaroa egiteko prest dagoen taldea badagoenez, ikastaroan parte hartu duten emakumeak praktikan hartzeko norainoko asmoa duten sakonduko dugu, gerora begira mantenduko ditugun harremanetan.

## aste gazte

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• 98-99 ikasturtean unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko diru laguntzetarako deialdia. Epea: urriak 15.

• Jesus Gangoiti Barrera Fundazioaren eskutik, unibertsitate tituludunentzat gai ezberdinetan ikasketak egiteko diru laguntzak. Epea: urriak 28.

### ■ LANA

• Lesakako Andra Mari Egoitzarako zuzendaria behar da. Epea: urriak 14.

• Bartolome Erzila Fundazioarako, txistu, biolin, flauta eta klarinete irakasleak behar dira. Epea: urriak 15.

• Berako Udalak, administrari laguntzaile bat behar du. Epea: urriak 19.

• Bizkaiko Foru Aldundiak, suhiltzaile gidariak behar ditu. Epea: EAOn argitaratzeko zain.

### ■ LEHIAKETAK

• Mutrikuko "Jangek Me" elkarteak heriotzaren inguruko euskarazko ipuin lehiaketa antolatu du. Epea: azaroak 13.

• Juantxu Rodriguez argazki lehiaketa, Portugalteko Margen taldeak antolatua. Argazkiak, gai librean. Epea: azaroak 13.

### ■ IKASTAROAK

• Perkusio ikastaroa Iñaki Bruñak zuzenduta, astelehenean, 18:00etatik 21:00ak arte, Gazteluondo ikastolan. Informazio gehiago Gazte Bulegoan.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

**“Emakumeen presentzia areagotu nahi dugu metalurgia arloan”**

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• 76m<sup>2</sup>ko etxebizitza, erdi jantzia salgai. Erguin auzoko Udalpe kalean. Tel.: 943 79 76 92.

• Etxe bat salgai Elciego (Arabako Errioxan). Lehenengo solairuak bi etxebizitza ditu, bi behe handi. Tel.: 941 60 61 05.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 943 71 22 61 (egunez) edo 943 79 70 03 (gauez). Sabino.

### 3. Errentan emateko

• Berriztatutako etxebizitza alokagai, Arrasate erdian. Tel.: 990 26 72 63.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 910 36 06 29. Deitu gauez.

• Etxebizitza alokatuko genuke, Arrasaten. Tel.: 943 45 88 97.

• Etxebizitza alokatuko nuke. Bero-gailua beharrezkoa da, nahiz eta jantzi gabe egon. Tel.: 943 71 51 67. (20:00etatik aurrera, Marta).

• Emakumezko ikasle italiarrak etxebizitza alokatuko luke Arrasaten edo Oñatin. Sukaldearekin etajantzia. Dei egin Soziologia Fakultatera (Tel.: 943 78 30 64/943 78 34 00.) eta esan harremanetan ipintzeko Carmen Paoluccirekin.

• Etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Tel.: 943 79 20 61 (Ibon).

### 5. Etxeak osatzeko

• Neska bat behar da Donostiako Gros auzoan etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 89 62.

• Leioan lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 30 61.

• Neska bat behar da Donostian etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 83 22 (Maite).

• Aramaion pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Utzi mezua: 907 23 43 54.

• Laguna behar dut Donostian (Amaran) etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 71 50 87/943 71 41 49.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko, Bilbon. Tel.: 943 79 56 86.

• Ikasle batek gela bat hartuko luke etxebizitza batean. Euskaldunekin hobe. Tel.: 943 55 07 42. Kepa.

• Pertsona bat behar da Leioako Unibertsitatetik gertu dagoen etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 51 68 (Ainhoa)/ 943 79 28 11 (Saioa). 14.000 pta hileko.

• Gela bat behar dut ikaslezu osaturiko etxe baten. Tel.: 943 60 41 80/943 60 34 95. lidoia.

• Mutil bat edo bi behar ditugu Donostian etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 39 62.

• Ikasle batzuek etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 38 (Danel).

• Gela bat alokatuko nuke Arrasaten edo pertsona bat falta zaien etxebizitza osatuko nuke. Tel.: 943 31 30 56. Gaueko 20:00etatik aurrera. Garikoitz

• Irakasle batek logela bat beharko luke osatzeko dagoen etxebizitza batean. Tel.: 943 79 07 84.

• Bilbon pertsona baten bila gabiltza ikasle etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 943 79 28 05. (Iker).

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Hiru logela hiru pertsonarentzat, Arrasateko erdialdean. Tel.: 930 71 29 31. Arratsaldez.

• Gela bat alokatu nahiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 01 21. Mitxel. Gauez detu.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai Jose Luis Iñarra Pasealekuan. 700.000 pta. Tel.: 94379 27 68. Gauez deitu.

• Garaje handia prezio txikian alokagai Udala plazan, Usetxe inguruan. Tel.: 943 79 66 638.

• Garajea salgai Altamiran. Tel.: 943 79 36 79.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m<sup>2</sup>ko bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

• Tokia salgai Erguin kalean. Edozein negozio motatarako prestatua dago. Tel.: 909 40 93 66

• Kale aldean baina Zarugaldetik gertu 100m<sup>2</sup>ko bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

### 15. Errentan hartzeko

• Neska talde batek toki txiki bat alokatuko luke. 943 77 09 91 (Esti).

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Etxeak garbituko nitzuke, edo pertsona nagusiak zaindu. Tel.: 943 79 11 46.

• Neska prest edozein lanetan aritzeko. Tel.: 943 71 55 64. Vanessa.

• Emakume euskalduna prest etxe-ko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Emakume arduratsua prest umeak zaindu edo etxe-ko lanak egiteko. Tel.: 943 79 54 48.

• Emakumea prest umeak zaintzeko edo orduka atariak garbitzeko. Tel.: 943 79 78 36. M<sup>a</sup> Carmen.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko edo nagusiei konpainia egiteko. Interesatuak dei egin 943 71 53 74 telefonora, 20:00etatik aurrera.

### 18. Eskaerak

• Pertsona bat behar dut, bi astetik behin, goizez umeekin egoteko, Aretxabaletan. Tel.: 943 79 79 29.

• Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.

• Emakume bat behar da ume bat zaindu eta etxe-ko lanak egiteko, Uribe auzoan. Tel.: 943 77 03 05

• Neska bat behar da arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 47 85.

• Modeloak behar dira lle apaindegirako, urriaren bigarren hamabostaldirako. Tel.: 943 77 09 44.

• Zerbitzaria behar da asteburuetarako. Tel.: 945 44 50 86.

• Neska prest umeak zaintzeko eta etxe-ko lanak egiteko. Tel.: 943 79 96 10 (Mari).

**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

• Gitarra eskolak eskaintzen dira, solfeorik gabe edo solfeorekin. Klasi-koa edo laguntzekoa. Merke. Tel.: 943 79 07 64.

• Eskola partikularrak ematen ditut. Euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 36 93. Patricia.

• Eskola partikularrak ematen ditut. Euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 31 48. Maider.

**21. Eskaerak**

• Irakasleak behar ditugu modalitate guzientzat. Helbidea: Doktor Cristobal. Tel.: 943 77 04 67.

• Kontabilitateko eskola partikularrak hartuko nituzke larunbatetan. Deitu asteburuetan. Tel.: 943 7930 39.

• Eskolak hartuko nituzke gai haue-  
tan: programazioa, sistema eragile-  
ak eta sareak. Tel.: 945 44 51 66.

• Ekonomia alorreko matematika irak-  
asle bat behar dut, Batxilergo LOG-  
SE 2. mailan. Tel.: 943 79 39 62.

**MOTORRA**

**23. Saldu**

• Conver 13 karro karabana salgai. Sukalde osoa, mahai eta aulkiekin batera, 140.000 pta., eztabaidagarriak. Tel.: 943 77 09 91. Haimar.

• BMW 318 i5.16v Coupe. 90 urte-  
koa. 140 cv. Zuria. VI-L matrikuladu-  
na. Egoera onean. 120.000km. Pre-  
zioa: 850.000 pta. Tel.: 945 28 93  
07. Alberto.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

• Errepideko bizikleta salgai. Karbo-  
nozko koadroa eta 55eko neurrikoa. Piezak Campagnolo markakoak dira. Merke. Tel.: 943 79 87 10 (21:00eta-  
tik aurrera).

• Komuneko altzari eta osagarriak salgai. Merke. Tel.: 943 79 19 99. Mariluz.

• Flex literak salgai 35.000 pta.tan. Intxaurrezko telefonoa salgai 10.000pta.tan. Tel.: 943 79 57 64.

• Marrazteko mahaia salgai. Berri-

berria, prezio erdian. Tel.: 943 79 33 17 (21:00etatik aurrera).

**27. Erosi**

• Disko singleak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

**29. Eman**

• Ehizako txakurkumeak (setter) ematen dut. Tel.: 943 79 20 24.

**31. Galdu**

• Tamaina handiko urrezko belarri-  
takoa galdu nuen larunbatean, 19an,  
San Andresen edo Musakolan. Sari-  
tuko da. Tel.: 943 79 12 95.

• Maritxu Kajoi gauean graduatuta-  
ko betaurrekoak agertu ziren Irati  
tabernan. Jabea handik pasatu,  
mesedez.

**32. Aurkitu**

• Saskibaloiko elastiko bat aurkitu genuen urriaren 2an Arrasate Pase-  
alekuan. Tel.: 943 77 13 97.

**33. Bestelakoak**

• Osatzeko tratamendu naturalak ematen dira. Reiki sistema. Mota guz-  
tietako gaixotasunak. Tel.: 943 79 45 74

• Lau gazte gara, gure autojostiora-  
ko nekazaritza eta eskulangintza proiektuak ditugunak. Beraz, gustu-  
ra hartuko genuke berrizteko dago-  
en baserri zahar bat. Tel.: 943 79 48 0. Itziar.

• Perkusio lantegia. Hastapen eta sakontze mailak. Hainbat erritmo: afri-  
karrak, arabiarak, hegoamerikarrak,  
rock&rolla... Astelehenetan, arra-  
tsaldeko 18:00etatik 19:00etara,  
Gazteluondoko ikastolan. Izen ema-  
tea, eta berri gehiagorako Gazte Bule-  
gora jo. Tel.: 943 77 00 65.

**ARRASATE PRESSEko harpidetza berriztu nahi duzula?**



Arrasatetik kanpo dauden lagun edo senitartekoei harpidetza oparitu nahi diezula?

**ORAINTXE DUZU GARAIA!**

Arrasatetik kanpo dauden arrasatearrek hemengo berriak eta jendea gertuago izan ditzaten Gure kontu korrontean **3.000 pta.**ko diru sarrera egin dezakezu kontu korronte zenbaki hauetako batean:

- **KUTXA 001.026694.8 (Portaloiko bulegoa)**
- **EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kaleko bulegoa)**

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean bidali behar den. **ARRASATE PRESS** atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu, zatoz gure bulegoetara eta jakinaraziko dizugu.

**Tel.: 943 79 02 26 Helbidea: Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE**



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARKOren 99ko Gida Komertziala prestatzen ari gara dagoeneko.

Aurten, Kike Dapena eta Oihana Jausoro izango dituzu bisitari zure tabernan, dendan edo lantegian komertzial lanak egiten.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako merkatarien telefonoak jasoko dira Gida 99an.

ARKOren gidan azaldu nahi baduzu edo berri gehiago jaso nahi izanez gero, deitu ARKOra ( 943 77 08 15).

Gida 99, zure lana errazteko.

# Gida 99

Arrasate Press  
ATB - Arrasate Telebista

ARKO (Arrasate Komunikabideak)

Gida 98




Gida 98



# Aste honetan ere, berritasun ugari ATBn

Datorren astean oraindik estre-natu ez diren zenbait programa ikusteko aukera izango dugu ATBn. Astelehenean jai denez, egun horretan ez da ez berririk ez bestelako saiorik izango. Dena den, astelehe-nean *Jolasplast* izango da lehenengoz Mikel Lizarral-deren eskutik. Etxeko txikie-mentzat, beraz, jolasteko auke- ra paregabea. Asteartean *Musiklasik* saioa izango da Iñaki Olaizolak eta Marta Iza- girrek aurkeztuta.

Asteartean mahai inguruan eserita solasaldia izango du Rosa Mondrangonek "Mahai Ingurua" izeneko saioan, ATB-ko kamaren aurrean. Rosa Mondragon etxe honetan aurrez ere lanean aritutakoa da. Urte batzuk dela berak egiten zuen ATBko albiste aurrerapena. Horretaz gain, *Arrasate Pres- sen* ere ibilia da kazetari lanak



Iban eta Edu, Soinuz Blai saioaren aurkezleak

betetzen. Beraz, afalosteari behar bezalako etekina emate-ko aukera paregabea, dudarik gabe, Rosaren Mahai Ingurua saioak eskainiko duena.

## KALEIDOSKOPIOA, BERRIRO ATBn

Kultura gaiak atsegin dituenak, kontuan hartu beharreko hitzordua izan dezake eskura

ostegunean, iluntzeko 21:30etatik aurrera. Aitziber Langaran eta Unai Iparragirre izango ditu aurkezle gisa saio honek. Kultura arloko gai eta zenbait pertsona ezagun hobeto ezagutzen lagunduko digu- te dagoeneko horren berria ez den saio honetan. Izan ere, iaz estreinatu zen saio hau. Orain dena den, bi soilik arituko dira

aurkezle lanetan. *Kaleidosko- pioa* saioa bukatu bezain las- ter, Iban Gonzalez eta Edu Abasoloren *Soinuz Blai* musi-ka saioak hartuko du lekukoa ATBn. Musikazale diren guz- tiak adurra dariola jartzeko moduko saioa, musikazale diren bi gazteren eskutik.

## ASTEBETEN, ASTEKO ALBISTEAK IKUSGAI

Azkenik, *Astebete* saioarekin egingo du ATBk asteko erre- matea. Astean zehar jazo diren gertaera eta albiste garrantzi- tsuenak bilduko ditu saio honek. Hau ere, albistegiaren ondoren izango da, albistegian esatari lanak egiten dituen aurkezle beraren eskutik. Osti- ralean oraindik inor telebista gosez gelditu bada, jakin beza *Astebeteren* ondoren, *Soinuz Blai* saioaren errepika izango duela.

## ■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 11	ASTELEHENA, 12	ASTEARTEA, 13	ASTEAZKENA, 14	OSTEGUNA, 15	OSTIRALA, 16
		13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena</b>
		17:20 <b>Jolasplast.</b> Mikel Lizarralde tartean dela, hau- rrek ez dute asper- tzeke betarik izan- go. (1. programa).	13:35 <b>Musiklasik</b> (Errepika).	13:35 <b>Mahai ingurua</b> (Errepika).	13:35 <b>Kaleidosko- pioa.</b> (Errepika).
		20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b>	20:00/20:30 <b>Berriak</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b>
		21:30 <b>Musiklasik.</b> Iñaki Olaizola eta Marta Izagirrek aur- kezututako musika klasikoari buruzko saioa.	21:00 <b>Mahai ingu- rua.</b> Rosa Mon- dragonen eskutik, solasaldia seguru mahaiaren ingu- ruan jarrita.	21:30 <b>Kaleidosko- pioa.</b> Aitziber Lan- garan eta Unai Ipa- rragirrek aurkez- tutako kultura pro- grama.	21:30 <b>Astebete.</b> Aste- ak izan dituen berririk garrantzi- tsuenen laburbil- duma.
				22:00 <b>Soinuz Blai.</b> Nahi adina musi- ka Iban Gonzalez eta Edu Abasolo aurkezle dituen saio honetan.	22:00 <b>Soinuz Blai.</b> (Errepika).



**H**ementxe duzue Kanpazarrera bidean zegoen Santutxoko harrobia, *Montxon* baserritik ikusita. Trojaola familia arrasatearrak ireki zuen harrobia 1959an. Beranduago Barinaga enpresak har-

tu zuen eta ondoren Harria Taldeak. Honekin porrot egin zuen eta 1975ean itxi egin zen. Orduan Donostiako Calcinor enpresak erosi zuen, nahiz eta harrezkero inoiz ez duen erabili.

Argazkian orain dela gutxi harrobian bota den eraikina ikusten da, Montxon aitajau-

nak zeukan etxe handi baten ondoan. Montxon itzaina zen eta gurdiekin ibiltzen zen garraioan, Gipuzkoa eta Bizkaia artean. Etxe handi hori gurdiak edukitzeko tegi moduan erabiltzen zuen. Berak idiekin egiten zuen bidea gaur egungo errepidearen gainetik pasatzen zen.

-----  
*Argazkia eta berriemailea:*  
 Juan Luis Etxebarria.

**•ARTEA•**  
 Eskulanak eta lientzoak  
**ENMARKAZIOAK**  
 Laminak, Izpiluak,  
 Margoak  
 Ferrerías, 11 Tel.: 943 77 10 95  
 ARRASATE



**LOGOPEDIA  
 ZENTRUA  
 ARRASATE**

Logopedia eta psikologia  
 tratamendu kliniko eta  
 hezitzaileak haur eta  
 helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
 Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

**beatriz**  
*oinetakoak  
 eta poltsak*  
 Erdiko kale, 11  
 Tel.: 943 79 14 33  
 ARRASATE

WINTERALEA




NOVEDAD

**Dim's Microfibre Stretch**

**BERRIA!**

# Dim's Microfibre Stretch



Eta bizkar-poltsa bat opari

"Dim's Microfibre Stretch" multzoa erosteagatik.

**DIM**

*Casa Cenciaga*

Maalako Errabala,3  
ARRASATE  
Tel•Faxa: 791262

# centro hogar MUEBLES



a, eme...interiores

sukaldeak



Sofa  
leku

**GRUPO**  
**M**  
**Amuebladora**  
**Mondragonesa**

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE  
Tel. 943.791503 - 943.771492 • Faxe 943.791489